


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## EUSKARALDI Arako ideia lehiaketa

### DEIALDIAREN EZAUGARRIAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak, eta Arte Ederren Fakultateak, ikasleei deialdi hau zabaltzen die **ekintza performatiboak, esku-hartze artistikoak, esku-hartze muralak edota bestelako proposamen irekiak bideratzeko ideiak proposatzeko**, Euskaraldia jardunaldiari ikusgaitasuna emateko asmoarekin.

EUSKARALDIaren ekimenen programazioan, ikasleen parte-hartzea da helbururik nagusia eta ikaslegoaren inplikazioa bilatuko da antolakuntza eta kudeaketa lanetan.

Deialdi honek, guztira, 2.000 €ko aurrekontua du.

Aurrekontuak dagokion moduan egiaztatu behar dira eta barne sar ditzake egileentzako ordainsariak eta produkziarako aurrekontua (materialak).

**Ekintza performatiboak, esku-hartze artistikoak, esku-hartze muralak edota bestelako proposamenak EUSKARAZ bideratu beharko dira .**

**Proposatutako ekimenak 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3era bitartean egin beharko dira, Bizkaiko Campusean.** Ekimenak bideratzeko proposatzen diren espazio, pareten edo bestelako baimenak bideratzeko eskariak, Euskararen Errektoreordetzaren ardura izango dira.

### Proposamenen kudeaketa

Proposamen bakoitzaren arduradunek deialdi honen baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Deialdian, modu banakoan edo kolektiboan, UPV/EHUko gradu eta gradu-ondoko ikasleak parte hartu ahalko dute.

### Ekimenen aurrekontua

Proposamen guztiek aurrekontu zehatza barne hartu beharko dute.

Aurrekontu zehatzean **produktzio** gastuak (materiala, ekoizpena, etab) adierazi beharko dira (hauek fakturen bidez justifikatu beharko dira), eta parte-hartzaileen /egileen ordainsaria.

Ekimenen arduradunei fakturak egiteko beharrezko datuak emango dizkie hauek bideratu eta ordaindu ahal izateko.

### **Ekimenen hedatzea**

UPV/EHUK deialdian onarturiko ekimenen web-hedapena (posta zerrenda, sare sozialak, monitore digitalak) bakarrik hartuko du gainean. Beste hedapen medioetatik hedapena (kartelak, euskarri digitalak) egiteko balizko gastuak ekimen bakoitzaren erantzule ardurapean geratuko dira.

### **EPEAK**

Deialdia 2018ko urriaren 31an astelehenean, amaituko da. Eskerak, pdf formatuan (gehienez 8mb), [ecultural.fac.bellasartes@ehu.es](mailto:ecultural.fac.bellasartes@ehu.es) helbidera zuzenduko dira informazio honekin:

1. Proposamena egiten duen pertsona edo taldearen dossierra
2. Proposamenaren proiektua: deskribapena, kokapena, azalpenak eta irudiak,
3. Aurrekontu zehatza eta ekimena egiteko datak

Euskararako Errektoreordetzak eta Arte Ederren Fakultateko zuzendaritzak proposamenak aztertu eta aukeratuko ditu.

Deialdi honetan parte hartzeak baldintza hauek onartzea dakar.